



ORDAINKETA ZATIKATUA ARABAKO ARAUDIAREN PEAN DAUDEN ENTITATEENTZAT

Araudia: 37/2013 Foru Arauaren 130. bis artikulua.

Kooperatibek ordainketa zatikatua egingo dute 16/1997 Foru Arauaren 23. bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zergadunak: enpresa ertainak eta handiak. Foru arau honetako 13. artikuluan araututakoaren arabera enpresa txiki edo mikroenpresatzat hartzen diren entitateek ez dute ordainketa zatikatua aurkeztu beharko, ez eta zerga foru arau horretako 56. artikuluko 4. eta 5. ataletan ezarritako karga tasetan (%1ean eta % 0an, hurrenez hurren) ordaintzen duten entitateek ere.

Ondare sozietateek eta salbuespen partziala duten entitateek ordainketa zatikatua egin beharko dute ez badituzte betetzen SZFAren 13. artikuluko 1. apartatuko (mikroenpresak) eta 2. apartatuko (enpresa txikiak) b) eta c) letretan ezartzen diren baldintzak.

EITek eta ABEEek bazkide ez-egoiliarrei dagozkien zerga oinarria eta atxikipean hartu beharko dituzte ordainketa zatikatua kalkulatzeko erreferentzia gisa.

Epea: urriaren 1etik 25era.

Zenbatekoa: (Zerga oinarria * % 5) - atxikipean eta konturako sarrerak.

- Zerga oinarria: aitopena egiteko epea urriaren 1ean igarota daukan azken zergaldikoa. Epemugara heldutako azken zergaldikoa urtebete baino laburragoa izanez gero, zerga oinarria 12 hilabeteko epealdia osatzeraino gehituko da. Aitorpenik ez bada aurkeztu, horretara behartuta egonez gero, aurkeztutako azken aitopeneko zerga oinarria edo, hala dagokinean, egindako azken likidaziokoa hartuko da erreferentziazat.
- Atxikipean eta konturako diru sarrerak: zergadunaren diru sarreraren kontura egindako sarrerak eta atxikipean kenduko zaizkio, delako zergaldiari dagozkionak.

Ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan egin behar duten entitateek, zergaren azken likidazio-aitorpenean zehaztutako proportzioa aplikatuko dute. Hala ere, beste proportzio bat aplikatu ahal izango dute 37/2013 Foru Arauaren 130.6 artikuluan jasotzen diren kasuetan.

Ereduak: 203 eta 223

203 eredu (banakako araubidean) eta 223 eredu (zerga baterakuntzako araubidean), "Zerga ereduak" izeneko laguntza programaren bidez bete beharko ditu zergadunak.

Ez dira aurkeztu beharko 203 eta 223 ereduak, dagokien aldian ordainketa zatikatu moduan inolako diru sarrerarik egin behar ez den kasuetan.

Aurkezpena: telematika

203 eta 223 ereduak, nahitaez, telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Aurkezteko prozedura:

- www.araba.eus - Egoitza Elektronikorako sarrera - Banakako aitortzen aurkezpena - Ziurtagiri digitalaren bidez identifikatzea - Sortu eta bidali - Aitortzenak sortu eta bidali - Eredua bidali.
- Aitortpena egiteko erabilitako "Zerga ereduak" laguntza programaren bidez bidali ahal izango dituzte fitxategiak. Arabako araudiaren peko zerga erakunde eta taldeek.

Laguntza zerbitzua:

203 eta 223 ereduaren aurkezpen telematikoz zalantzarik baduzu, dei egin dezakezu Egoitza Elektronikoko Laguntza Zerbitzura:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 56 90 28
- Posta elektronikoa: diputaciondigital@araba.eus

Zerga arloko edozein zalantzatarako, gure Zerga Argibideetarako Zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke:

- Astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era
- Tel.: 945 18 15 55
- Posta elektronikoa: consultasfiscales@araba.eus